

# GOGOBETETZE INKESTAREN EMAITZAK

udal**top**

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)





## Sarrera

***Euskaraldia puntuz puntu. Aurtengo puntuari erantzunak eta datorrenari galderak*** izenburupean, Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketa egin da 2018ko maiatzaren 17an eta 18an Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean. Partehartzaile, hizlari, aurkezle, gonbidatu eta antolatzaileen artean 271 lagunek parte hartu dugu hamargarren edizioan, aurreko urtean izandako kopurua mantenduz.

Partehartzaileen iritzia ezagutzeko asmoz, **Balorazio inkesta** bidali zaie eta astebetean, 136 erantzun jaso ditugu. Galdetegian, zazpi eremu jaso dira zenbakiz –eskala numerikoan, 1-5 artean puntuatzeko– eta idatziz erantzuteko:

1. Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira?
2. Zer iruditu zaizu ostegun arratsaldeko saio berezia?
3. Talde-lanaren dinamizazioa egokia izan al da?
4. Zer iruditu zaizu Araetako otorduen zerbitzua?
5. Topaketa hauetan espero zenuena jaso duzu?
6. Zer iruditu zaizkizu Topaketak oro har?
7. Hurrengo Topaketarako egokiak izan daitezkeen gaiak proposatu

### Oharrak:

1. Hitzaldi guztiak banan bana baloratzeko eskatu dugun arren, txosten honek ez du jasotzen balorazio hori.
2. Idatziz egindako komentarioetan errepikatzen ziren ideiak bateratu egin ditugu.



## Erantzunak, batz bestekoak

Jarraian, galderaz galdera, **Balorazio inkestan** jasotako erantzunekin ateratako batz bestekoak, puntuaziorik altuena 5a dela kontuan izanik.

- Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira?
  - Batz bestekoa: **3,92 puntu.**
- Zer iruditu zaizu ostegun arratsaldeko saio berezia?
  - Batz bestekoa: **3,77 puntu.**
- Talde-lanaren dinamizazioa egokia izan al da?
  - Batz bestekoa: **3,77 puntu.**
- Zer iruditu zaizu Araetako otorduen zerbitzua?
  - Batz bestekoa: **3,69 puntu**
- Topaketa hauetan espero zenuena jaso al duzu?
  - Batz bestekoa: **3,73 puntu.**
- Zer iruditu zaizkizu topaketak oro har?
  - Batz bestekoa: **3,90 puntu.**



## Erantzunak, iruzkinak

Hitzaldi, arratsaldeko saio, ekarpen-lan eta beste hainbat konturi puntuazioa jartzeko eskatzeaz gain, partehartzaileei hobetzeko iruzkinak eskatu dizkiegu. Hona hemen erantzunak, atalez atal.

### Hitzaldi, arratsaldeko saioa, Araeta eta ekarpen-lana

1. Egokia izan da euskara teknikarion topaketa.
2. Denboraren kudeaketa zaindu, bereziki bazkalosteko saioan. Ezin izan genuen behar bezala gozatu kultur saioez.
3. Asko ez ginen eseri tokatzen zitzaigun tokian. Agian hurrengoan, ezkotzetan bezala, sarreran "mahaien mapa" jartzea ondo legoke.
4. Aurreko urteetakoan hobeki jaten zen, ezbairik gabe.
5. Web orrian menua euskaraz izatea.
6. Lekua ederra; jana tamaina onean; zerbitzua azkarra eta ona.
7. Lekuak apur bat estu espazioaren aldetik, bananduagoak eseritzeko orduan.
8. Bazkalosteko alaiagoa, lo gera ez gaitzen. Alde horretatik magia ondo egon zen baina besteak triste samarrak. Jardunaldi amaierakoa ere oso tristea.
9. TALDE-LANA: arazoa ez da dinamizazioa izan, eskainitako denbora baizik. Sentsazio txarrarekin atera nintzen, esandakoak ez zirela ongi ulertu, eztabaidatzeko aukerarik gabe... Nire ustez, horretarako hobe ez egitea.
10. Talde lanean, 50 minutu horiek pixka bat gehitzea ona litzateke.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



11. 2019ko proposamena, gure errealitatek oso urruti; eta ekarpenak egin ahal izateko, proposamenaren oinarriek errealitateko egoer(ar)ekin lotzeko aukera/denbora beharko lukete. Bestela, ariketa nahiko antzua gera daiteke, abiapuntua ez delako egokia.
12. Janari gutxiegia nire ustez, batez ere aurreko urteetako esperientziak gogoan izanda.
13. Kafe gehiago eta jateko gehiago hamaiketakoan.
14. Zerbitzua oso ona, baina lekua ilunegia izan zen. Bazkaria gozo-gozoa izan zen, baina kantitatea ere eskasa...
15. Bazkal osteko formatu egokiarekin asmatzea zaila iruditzen zait.
16. Ostegun arratsaldeko ekitaldia gehiegizkoa izan zen. Ongi dago kultur-ekitaldiak txertatzea, baina neurrian.
17. Lekua oso aproposa. Goiegiko jatetxearen aldean askoz zabalagoa eta espaziosagoa. Goiegiko estutasun sentsaziorik ez nuen sentitu. Janaria, berriz, juxtu antzean.
18. Arratsaldeko saioa gehiegi luzatu zen. Bazkaritan mahaiak herrialdeka banatzea ere ez da oso aberasgarria, nahasiago beharko genuke.
19. Hitzaldiak eta lan-dinamikak tartekatzea beharrezkoa da. Bazkalostekoa, kultur emankizuna bakarrik izatea hobetsiko nuke.
20. Ez du sakontzeko asti handirik ematen, eta hitzaldi batzuk praktikoagoak izatea eskertuko nuke. Batzuk euren burua saltzera joan ziren sentsazioa. Elkarren lana aitortu behar da, baina mamia da garrantzitsuena. Talde-lanerako oso tarte gutxi izan genuen, eta uste dut 2019rako planteamendua ez zela guztiz argi gelditu.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



## Topaketa hauetan espero zenuena jaso duzu?

1. Gehiago espero nuen. Edukiz eskasa iruditu zait eta gaiak ondo bideratu gabe. Datozen urteetarako proposamen praktiko gehiago eta teorikoak aplikagarriak izan daitezela.
2. Toki askotan oso garatuta doa Euskaraldia. Beste batzuetan, aldiz, martxan jartzeko arazoekin eta batere laguntzarik gabe. Oztopo eta arazo horiek ez dira aipatu ere egin, eta ekarpen taldeetan ere, zentsuratuta atera direla uste dut.
3. Orokorrean bai; nik soziolinguistikarekin, psikologiarekin eta soziologiarekin lotuko nuen gehiago; hau da, zer topatuko du pertsonak egoera estresante horretan, zelan jokatu du taldeak, zer egin ahal da egoera jakinetan...nik uste ari garela esaten jendeari zer egin behar duen baina faltan botatzen dut ohitura aldaketak suposatuko duena kontuan ez hartzea eta erantzuna ematen ez jakiteari beldur diot.
4. Euskaraldia martxan jarri dugun tokietako ordezkariak zegoen aurtengo Udaltopen eta tresna bila joan ginen gutako asko. Tresna praktikoak behar ditugu, jakin gainerako herrietan nola egiten ari diren, zein ekintza eta bitarteko ateratzen ari diren jendearengana iristeko...tresna kutxa baten falta sumatu nuen. Horregatik Bergara, Lasarte eta herri batzuen interbentzioak izan dira aurtengotik baliagarrienak suertatu zaizkidanak.
5. Arratsaldeko ekitaldien ordutegia hobeto zaintzea, berandutu egin zen eta jende askok alde egin zuen.
6. Gure erakundean Euskaraldia aktibatzeke nituen zalantzak agertzeko aukerarik ez nuen izan. Uste nuen talde-lana horretara bideratuta egongo zela.
7. Talde laneko denbora gehiago.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



8. Nire ustez, Euskaraldiaren 2.0 bertsioa jorratzen hasi baino lehen, lagungarri suertatu ahal zitzaigun oraindik bete behar dugun bidea nola egin landu izan bagenu. Datorren urterako planteatu dena egin ahal izateko, lehenengo eta behin aurtengo esperientzia ezagutu behar izan dugu.
9. Talde lana interesgarria da, baina aukeran motz geratzen dela iruditzen zait. Azken bi edizioetan Euskaraldiko programari ekarpenak egiteko baliatu da bestelako gaiak alboratuta.
10. Talde-dinamiken denbora laburregia izan zen eta ustez garrantzia handiko tartea zen.
11. Topaketak, berez, oso interesgarriak eta ongi antolatuak zeudela iruditu zaizkit. Gainera, hitzaldiek ematen dutena baino gehiago ematen du Udaltoppek. Onartu behar dut, ordea, 2019ko proposamenak sentipen gazi-gozoa utzi didala, aurrekoetan gertatu izan den bezala ilusioa sortu ordez, kezka handia eragiten didalako.
12. Errepikakorra iruditu zait.
13. Zehaztasun gehiagoko hitzaldiak espero nituen, aurten dena oso azalekoa iruditu zait.
14. Trukerako espazio gehiago.
15. Ez dit iazko ilusiorik piztu 2019rako planak. Ez dut irudikatzen.
16. Akaso ondo legoke, enpresa edo herri txikien esperientzien berri izatea. Oso ondo egon zen Getxo edo Fagor moduko ereduak ikustea, baina Euskaraldia edo erabilera aktibatzekeo praktikak baliabide gutxiagorekin aurrera ateratzeko esperientziak oso interesgarriak izan daitezke.
17. Herrialde ezberdinetako presentzia gehiago behar da.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



18. Oso teorikoa izan zen, praktikarako tarterik ez, ideia berriak hartzeko. Arduradun politikoak nahiko hizlari eskasak, askorik ez zuten kontatu.
19. Maletak bete belarritako bezalako hitzaldiak ezinbestekoak dira. Teknologia berriei heldu behar diegu arlo guztietan.
20. Euskaraldiaren berri gehiago.
21. Lehen egunean ere taldeka eztabaida tartetxo bat jarriko nuke, elkarrengandik ikasi eta kezkek elkarbanatzeko.
22. Badakit 10.urreturena zenez ekitaldi berezia egin nahi izan dela, baina ostegun arratsaldeko "floritura" guztiak kendu egingo nituzke: drona, musika, magoa... Asko luzatu zen eta ez zen beharrezkoa, nire ustez.
23. Gardentasuna falta izan da 2019ko proposamenean, nahiz saiakera sumatu den iazko katramila ez sortzen, kontu handiz hartu behar dira erabakiak, lidergoa esaten dugunean ordaintzen duena esaten ari gara? Erakundeen arteko lidergoan badugu zer ikasi, horizontalak gara baina bertikalean funtzionatzen ?? Bestalde, udal teknikarien arteko topaketa izanik ere, aholkularitza enpresak, euskaltegiak falta direla esango nuke...
24. Herri txikien testigantza falta sumatu nuen. Euskaraldia modu merkean, xumean bultzatu(ko) duten herri baten testigantza. Errealagoa. Eta enpresetan ere gauza bera: enpresa xumeago bat, baliabide gutxiago dituena.
25. Lantegiak oso ondo iruditu zaizkit, denok aktibatu gaitu horrek.





### Zer iruditu zaizkizu topaketak oro har?

1. Eduki berri eta lagungarri gutxi jaso ditut. Eta, show estilo hori (drona, euskadun berriaren 'parodia'...) ez dut gustuko.
2. Nik uste dut hobe litzatekeela egun bakarrean dena trinkotzea, gai interesgarrietara mugatuta. Bestela, bizitzarako, lanerako eta abarrerako oztopo handia da. Bestalde, egun bikoia egiten jarraitzen bada, berandu da 14:30ean amaitzea, gutako batzuk 1:30 bidaia dugulako. Eta gainera, ostiral batean.
3. Orokorrean ondo egon direla iruditzen zait, teorikoa izan dela uste dut eta akaso praktikoagoa izatea eskertuko nuke. Banatutako materialari dagokionean akreditazioko zintzilikatzeko hori ez nuke aterako, gastua aurrezteko eta prezioa ahal balitz pixka bat jaitsiko nuke.
4. Hizlarien arabera, aurkezpenei tarte ezberdinak ematea, adibidez, Pellorena ordubetekoa izango balitz nahiago.
5. Komunikazio gutxiago eta hobeto hautatuak eta, ondorioz, tarte gehiago iruzkin eta galderetarako.
6. Hitzaldien denbora erdia izanik orekatua izango litzateke.
7. Udal administrazioan Euskaraldia eta euskara plana elkar lotzeko bideak lantzea.
8. Egia esan, ez dut aurkitu espero nuena. Oso gaineratik azaldu zaizkigu hurrengo urteko nondik-norakoak, baina ez zaigu jarraibide zehatzik eman. Gainera, gorago esan bezala, hori lantzen hastea oraindik aurtengoa ia bideratu gabe dagoenean, ez zait egokiena iruditu. Hitzaldiak eurak eta helburua ez dira oso lotuta egon, nire iritziz.
9. 2019ko Euskaraldirako asmoa anbiziosoegia dela uste dut.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



10. Ekarpen lana egiteko, zergatik herrialdeka jarri? Agian zonalde soziolinguistikoaren arabera, edo ezaugarri komunak ditugun herrien arabera...
11. 2019ko Euskaraldiari begira jartzea ez zait gustatu. 2018koa ezin abiarazi gabiltza herrian eta 2019koari begira jartzeko ez zait foro eta garai egokia iruditu.
12. Iruditzen zait Euskaraldiak gehiegizko protagonismoa izan duela azken bi edizioetan.
13. Talde-lanaren jendaurreko laburpena ez zitzaidan askorik gustatu. Gure taldean esandakoak lausotu egin ziren edo ezkutatu. Espero dut iruzkin guztiak batzea diren-direnetan, 2019ko Euskaraldirako ezinbestekoa ziren eta.
14. Lehen eguneko arratsaldeko saioa kendu egingo nuke, azkenean eguna oso luze egiten da. Bi goizetara mugatuko nuke topaketa; beraz, bazkaria ere kendu egingo nuke..
15. Bakoitzari hainbeste orri eman beharrean, koadernoan etiketa batean jartzean zer talde dagokion (ehunka orri gutxiago!!)
16. Dena bikain, benetan zorionak egiten duzuen lanagatik. Lekuz kanpo egon zen gauza bakarra Toti Martinez de Lezearen diskurtsoa izan zen; irakurri zuena polita izan zen, baina egin zituen aipamen asko lekuz kanpo egon ziren...
17. Ondo antolatuta egon dira, aurkezleak egitekoak oso ondo egin ditu, aretoa oso egokia, giro oso ona, baina ideia berriak jasotzeko asmoz joan nintzen, eta ez nuen halakorik jaso, salbuespenak salbuespen.
18. Datorren urtean espero dut jubilatuentzat tarifa murriztua ;-)

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



19. Ostiraleko saioan 2019rako proposamena azaldu zen, baina argi ikus zezakeen dena EAEko ikuspuntutik antolatzen ari zela, kontutan hartu gabe Iparraldeko eta Nafarroako egoerak, azken honetan esaterako hauteskundeak baitira.
20. Antolaketa eta hizlariari emandako denbora ondo neurtuta. Kontua da gai batzuk aurretiaz ezagutzen genituela eta ez dela ekarpen berririk egon.
21. Nire iritziz gauza berri asko ez dugu jaso, baina beste batzuen esperientziak entzutea baliagarria izan da. Fagor-Ederlanekoen tartean publizitate handiegia egin zitzaiola uste dut hasieran eman zuten publi-reportaje bideoarekin, soberan zegoela uste dut. Aldiz, amaierako tartea hobea izan zen.
22. Edukiak egokiak eta interesgarri izan arren, saio batzuk astunak egin zaizkit. Elkarrizketa-mahai inguru formatuak faltan bota ditut.
23. Gehiago entzuteko gogoz gelditu nintzen.
24. Beharbada hizlari batzuk presaka samar ibili dira, denbora faltagatik.
25. Areto nagusian ponentzien ondoren partaideak jendaurrean galdetzen ausartzen ez direnez, merezi du galderak egiteko modu osagarri bat asmatzea.
26. Talde laneko ondorioak errespetatzea ondo legoke, gurean ez genuen Euskaraldirako erakundeen babesa eskatu, lidergoa eta eredugarritasuna baino. Hau da, Lehendakaria eta hiriburuetako alkateak, ahobizi txaparekin ikusi nahi ditugu azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 1. hitza euskaraz eginez eta ereduarekin praktikatuz.



## Hurrengo topaketetarako egokiak izan daitezkeen gaiak

1. Aktibazioari eusteko zer?
2. Hizkuntza eskubideak.
3. Baliabide tekniko eta teknologikoak.
4. Beste hizkuntza gutxitu batzuk.
5. Euskaraldiaren etorkizuna. Aurtengoa prest, datorren urtean entitateak, baina gero?
6. Euskal Herria puntaz-punta, baina zabaldua. Toki entitateen euskara zerbitzuen egoera bildu (proiektuak, baliabideak, antolaketa...) Euskal Herriko egoeraren ikuspegi orokorra izateko, tokian tokiko proiektu zehatz batzuk aukeratuz hauen berri emanez.
7. Euskara lan munduan txertatzeko praktika egokiak.
8. Euskara zeharkakotasuna nola txertatu arlo guztietan, aisialdia eta kirola ( nola prestatu gure begiraleak, lan-poltsak), tramitazio telematikoak eta euskara.
9. Nola eragin erdal elebakarrengan gune soziolinguistikoari garrantzirik kendu gabe, lehenengo gune soziolinguistikoetan zentratuko nintzateke. Azken batean, gune horietan bizi da jende gehien eta eragite esparru handia dago, beraz, herri/hiri horietan zein neurri har daitezkeen aztertzea interesgarria iruditzen zait
10. Erakundeak euskalduntzeko dagoeneko egiten diren esperientziak.
11. Kasu praktikoak.
12. Erabileran eragiteko ideiak eta praktikak.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



13. Euskaraldia 1.0ren balorazioa, Euskaraldia 2.0 egoera guztien ikuspegitik landuta.
14. Gazteak eta erabilera.
15. IKTak, aukera gisa (administrazio elektronikoa, herritarren parte hartzea...).
16. Eta lan-munduaren atek zabaltzen baditugu?
17. Hizkuntza ohiturak aldatzeko praktika desberdinak (beste herrialdeetako esperientziak) Erakundeen kontraesanak hizkuntza politika aplikatzerako garaian. Interes politikoa vs hiztunen eskubideak.
18. Eskola orduz kanpoko jarduerak (aisialdia) euskaraz, merkataritzan euskaraz, gazteak eta euskara.
19. Dena oso polita izango balitz bezala atera ginen jardunaldietatik... baina egongo dira pilotajea txarto atera zaien herriak ezta? Niri hori ikustea falta zitzaidan, zertan egin den huts, besteok akats berean eror ez gaitzen.
20. Euskaraldiaren eragina.
21. 2019an entitateen gaia jorratzen ibiliko garenez gai zentrala bera izatea nahiko nuke, baina horretarako maiatza baino lehenago egingo nuke Udaltop.
22. Euskara eta teknologia berriak.
23. Pello Jauregiren terminologia erabilia; Euskaraldia 1.0ren ebaluazioa, Euskaraldia 2.0rako irizpideak-gakoa eta Euskaraldia 3.0rako gogoeta-proposamenak.
24. Hizkuntza eskubideen garapena eta unibertsoa.
25. Arduradun politikoen egitekoa Euskararaldiaren eta euskara planaren garapenean.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



26. Euskaraldia, baina hobetzeko esperientziak eskainiz. Plangintzak eta euskaraldia, nola uztartu. Euskara zerbitzuen dimentsioa eta zereginak. Gizartea aktibatzekeo prozesua bestelako eremuetan.
27. Udal mailan langileak trebatzekeo/aktibatzekeo moduak. Euskararen zeharkakotasuna udalean.
28. Ahalduntzea.
29. Teknikarion prestakuntza berezitua.
30. Euskararen normalizazioa Kulturgintzan zelan txertatu.
31. Udal legea dela eta, dirulaguntzak murriztuko dira, zelan egin aurre egoera honi?
32. Euskaraldia eta helduen euskalduntzearen arteko zubigintza: euskaraz arnas hartu eta ez ito euskaltegitik ateratakoan.
33. Erabilerak eta aktibazioak eman dezakete gehiago.
34. Euskaraldia 3.0 edo neurri legalak instituzioetan.
35. Erdaldunak, migratzaileak: ezagutzaren erronkak.
36. Euskararen erabilira instituzioetatik kanpo, hau da, familian, lagun artean...
37. Ez dut uste derrigorrezkoa denik gai "berriak" izatea, agian, lehendik landutakoak ekarri daitezke berriro ere.
38. Kale neurketak egitekeo metodo zehatzagorik ba ote?
39. Hizkuntza Ekonomia.
40. Euskara eta aniztasun linguistikoa/kulturala.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



41. Gaia baino, ideia da, baina ez dit garatzeko tokirik uzten hemen. Udaltopen, Euskal Herri mailako proposamenekin segitzekotan, bere urratzaile bokazio hori gorpuztekotan, urrats bat falta daiteke: garabidea emateko organo espezializatu bat. Bestela, Udaltopen inguruko potentziala gal daiteke, abiapuntuan desenfokeak gertatzen direlako. Ekimen horiek dimentsio egokia ez hartzea gerta daiteke, eta beste ehunka jardueren artean urtuta geratzea, edo erabat gauzatu gabe. Ona litzateke organo horren sorrera bultzatzeko azterketa egitea. Oso labur, laburregi esanda.
42. Hiru lurraldetik bakarrera (EAE). Lan egiteko era bateratu.
43. Sare sozialak eta teknologia.
44. Lege babesak duen garrantzia normalkuntza prozesuan.
45. Euskaraldia 1.0 erakutsitakoetan sakontzea.
46. Ulermena aktibatzeke metodologia.
47. Ahozkotasunaren lanketa.
48. Ezagutzatik erabilerara, praktika onak.
49. Tokian tokiko egoera: hamaika kolore eta hamaika errealitate Euskal Herrian.
50. Euskararen historia soziala herriz herri nola landu: Euskaltzaindia, Deba, Donostia...
51. Ordezkaritza publikoak euskararen sozializazioan inplikatzeko formazioa, estrategiak, neurriak...
52. Euskalgintza soziala eta instituzionalaren arteko mugak gainditzea. Euskalzaletasuna Vs Euskalgintza instituzionala.
53. Nerabeengan nola eragin.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



54. Gutxiengo ulermenera iristeko mekanismoak.
55. Euskaraldiak ekarri dituan erronkak ez dira urte batean betetzen, beraz, berorrek ekarriko dituanak lantzen bere nahikoa lan izango dogu (euskalgintzako eragile baktxaren eragin-esparrua zehaztu, jarraipen-lanak zelan egin, zelan mailakatu jatorkuzan helburuak eta lanak, herri aktibazinarako gakoak...).
56. Euskaltegiekin elkarlana.
57. Erabilera bultzatzeko esperientziak; generoa eta hizkuntza; gazteen hizkuntza jarrerak aldatzen ari dira?
58. Ulermenaren lanketa eta helduen euskalduntzea.
59. Ulerhizketak.
60. Galeseko ereduak planteatutako transbersaltasuna lantzea interesgarria izan daiteke.
61. Zelan aktibatu politikoak euskararen erabileran.
62. Pare bat: Herrialde katalanetako tokiko esperientziak, EHko Gobernu erakundeak elkarlanean (mahai ingurua) Aldundiak (hirurak), Jaurlaritza, Nafarroa eta Iparraldea.
63. Langilleek eduki beharreko hizkuntza eskakizunak.
64. Hizkuntza berdintasunean arituko bagara, gauza bat ulertu behar dugu guztiok: gutxienez ulertu egin behar ditugula biak, denok. Ahobizi eta Belarripresten dinamikaren antzeko gehiago behar ditugu gizartean ideia hori txertatzen joateko. Horra bideratuko nuke datorren urteko Udaltop.
65. Euskaraldia eta euskara planak nola uztartu.
66. Hizkuntz eskakizunak.



# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



67. Toki entitateetan euskararen zehar lerroa garatzeko teknikak/  
Kontratazioetan hizkuntza irizpideak txertatzea / Trebakuntza sistemen  
beharra erabilera planetan.
68. Kulturgune euskaltzaleak euskal kulturaren erakusleho eta euskaltzaleen  
topagune. 2.- Erdaldundutako eremuen berreuskalduntzea: garapena eta  
ekimenak. 3.- Euskararen erabilera indartzeko ekintzen azoka.
69. Euskaraldia lan munduan.
70. Euskarazko eta euskaraz aritzeko baliabide informatikoen zabalkundea lan  
munduan eta herritarren artean.
71. Euskararen zentralitatea eta zeharkakotasuna- praktika onak.
72. Beste zeharlerro batzuetatik ikas dezakegun zerbait, gaur egun indartzen ari  
den feminismitik adibidez.
73. Administrazioetan egindako praktika onak euskararen sustapenerako.
74. Ulermena zabaltzeko estrategia eraginkorrak.
75. Oztopoetatik ikasten, zelan hurbildu erdaldunengana, belarripresten  
ahalduntzea, konkistatzeko zailagoak diren esparruak, ...
76. Entitateetan hizkuntza konpromiso zehatzak erabakitzeko esperientziak.
77. Euskalduntzea eta aniztasuna; lan mundua.
78. Aktibazio ekimenei jarraipena emateko bide berritzaileak.
79. Euskaraldia-ren emaitzen azterketa kritikoa, kuantitatiboki eta kualitatiboki.  
2) Hizkuntz normalizazioaren abiadura desberdinak EHn barrena.
80. Hizkuntza aldetik gizartea euskaraz egitera motibatuko duten mekanismo  
sozialen ezarpena.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



81. Korsikako egoera soziolinguistikoa. Katalanuniko hizkuntza politikari buruzko hitzaldi bat.
82. Euskara Zerbitzuak eta Tokiko Euskara Elkarteak: koordinazio eta elkarlan iraunkor baten beharra.
83. Euskadiko Toki Entitateei buruzko Legea.
84. Euskaraldiaren jarraipena, famili transmisioa.
85. Herri ekimenaren eta administrazio publikoen elkarlana. Bakoitzaren zereginak eta papera.
86. Euskalgintza soziala eta instituzionalaren elkarlanean sakontzeko beharra eta aukerak.
87. Udalak eta arlo sozioekonomikoa.
88. Lan munduan errealistagoak diren egoeren esperientzia jasotzea, ez soilik garapen maila handia dutenak.
89. Entitateetan nola eragin.
90. Euskalduntzea etorkizunera nola moldatu; lan mundua euskaraz, gazteen itxaropena?
91. Herria mugiarazteko gakoak.
92. Euskara eta umorea.
93. Euskararen erabilera herri-ekimeneko taldeen funtzionamenduan.
94. Eskola ordutan umeak eta gazteak etorkizuna direlako, soziolinguistikoki janztea, Gu ere bertotan antzeko egitasmoa sortu Euskal Herri osorako.
95. Euskaraldia gauzatzeko zailtasunak herrietan eta enpresetan, eta horiei aurre egiteko erabili diren moduak.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



## Bestelakorik aipatzeko?

1. Hitzaldien iraupena egokia izan da (30 minutukoa).
2. Ekarpenak egiteko tarteak badago, behar beste denborarekin izan dadin. Bestela kendu, eta lantaldeak beste zerbaitek egiteko erabili.
3. Aurkezlearen lana bikaina izan zen, oso neurrian egindako lana.
4. Ez da berria baina kontuz EAEzentrismoarekin.
5. Handia naizenean, Pello Jauregi bezalakoa izan nahi dut.
6. Udaletako ordezkariak eta Udalez kanpoko elkarteak. Ze proportziotan partaide? Udaltop. Zorionak eta segi aurrera!
7. Mila esker, parte hartzen dudana hirugarren aldia da eta indarbarri atera naiz beti. Baliabide berriekin eta ilusio handiarekin.
8. 2019ko proposamena egitean Topagunea eta HPS bakarrik agertzea bitxia iruditu zitzaidan. Ez zen hobe izango Nafarroako Gobernuarekin eta Elkargoarekin egitea? Galdera da. Agian arrazoiak badaude horrela aurkezteko baina egoerak eskatzen zuen ordezkaritza zabalagoa izatea.
9. Udaletako euskara teknikariei erabat bideratutako hitzaldiak, baina normala da eurei zuzendutako topaketa izanik. Leku desberdinetan eramaten ari den dinamikei buruzko informazioa jasotzetik haratago ez naiz ezagutza gehiagorekin atera. Beste hizkuntza komunitateetako adituak ekartzea ongi dago baina euren berri izateko baina zalantzazkoa da ekarpenik egiten duten. Ostegun arratsaldeko saioa bazkalostean izanik, arina eta festa giroan izatea eskertu zen, baita berriro kultur-etxera ez bueltatu behar izana ere.

# udaltop

UDALETAKO EUSKARA  
ZERBITZUEN TOPAKETAK  
[www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus)



10. Antolaketa, oro har, oso ona izan da. Goizetako hamaiketako eskas xamarra, nik lehen egunean ez nuen kaferik lortu, eta bigarrenean jatekorik. Ekarpenen tarterako denbora justuegi zegoen kalkulaturik, bereziki eraikinean gora eta behera ibili behar ginela jakinda.
11. Nire ustez Ahobizi eta Belarripresten dinamika gehiago landu behar da; sendotzea behar du eta datorren urteari begira, erakunde eta elkarteetan egin beharreko lanketak hortik joan beharko lukeela uste dut. Entitateak hartu dezatela konpromisoa ahozko hizkuntza euren esparruan bultzatzeko, sendotzeko eta egonkortzeko. 11 egun baino gehiago beharko ditugu Euskal Herria Belarriprest eremu bihurtzeko. Lan mundua garrantzitsua izango da horretarako, dudarik gabe. Baina ezinbestekoa, nire ustez, kalean ere ideia hori sendotzeko eta filosofia hori zabaltzeko bideak egitea.
12. Aldeetan denbora gehiago.
13. Antolatzaileei zorionak lan ederra egin duzuelako 10. urteurrenean ere! Urtemuga berezia ospatzeko egindako ahalegina bikaina izan da. Muxote Potolo Bat murala egiten ikustea ere oso ederra. Pilar Kaltzadaren lana primerakoa, profesional itzela da-eta! Gosariari dagokionez kafe gutxitxo aurten. Ez zen denontzat iritsi.
14. Bazkaria kenduko nuke, kanpoan bizi garenontzat ordu asko baitira, eta garai honetan lanez gainezka egoten gara...